

Bilbon, 1998ko apirilaren 24an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
F. Krutwig,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
A. Urrutia eta
L. Villasante
euskaltzainak
eta
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Bilbon, Euskaltzaindiaren Egoitzan, 1998ko apirilaren 24an, goizeko hamar-
rrak eta laurdenetan, eman zaio hasiera
Euskaltzaindiaren hileroko batzarrari. Ez-
kerreko zutabea jasotzen dira bildu di-
ren euskaltzainen izenak. Ezin etorria
adierazi du J. M. Satrustegi jaunak.

Euskaltzainburuaren hitzak

Iragarritako gaitan sartu aurretik euskal-
tzainburuak zorionak eman dizkio J. San
Martini agertu berri dituen bi liburuengatik: *Giro gori* eta *Euskararen ostar-
teak*.

Zorionak eman dizkio, halaber, H. Knörr
jaunari Arabako euskarari buruz argitara
berri dituen bi liburuengatik. Bata, K.
Zuazorekin batera kaleratua (*Arabako
euskararen lekukoak: ikerketak eta tes-
tuak*) eta bestea, *Arabako euskarari bu-
ruz jakin behar dena*.

Zorionak eman nahi izan dizkio, azkenik,
E. Larreri ere Sarako biltzarrean jaso be-
rri duen sariagatik.

Aktak onartzea.

Aurreko hileko bi bileren aktei inork ez die oharrik egin eta dauden daudenean onartu dira.

1. Euskaltzain ohorezko berrien izendapen-proposamena onartzea.

Aurreko bileran aurkeztu zen zerrenda oso-osorik ontzat eman da. J. Berrojalbizen kasuan, onarpena eskatzekotan gelditu zen Euskaltzaindia. Onartu du eta, beraz, ze-
rrenda osoari eman dio baiezkoa Euskaltzaindiak (ikus eranskina).

2. Hizkuntza arauak.

2.1. Gramatikako "Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma" aurkeztea.

P. Goenagak egin du arau-gai honen aurkezpena. Gai honetan adostasun handi xa-
marra badago ere, Euskaltzaindiak zehazki ezer gutxi esan duela gogoratu du aurkezleak
eta komeni dela zerbait kaleratzea kontu honetaz. A. Urrutia jaunak adizki zerrenda bat
eranstea proposatu du. Nolanahi ere, idatzizko oharrak egiteko epea, beti bezala, hilaren
20a artekoa dela gogorarazi zaie euskaltzainei.

Hurrengo bileran eztabaidatuko da eta, hala badagokio, onartuko.

2.2. Kontsumitu-lan zerrenda onartzea amaitu.

Zerrenda honetan eztabaidarako utzi ziren hitzak hartu dira aztergai.

Korregidore / korrejidore izan da lehenbizikoa. Hitz berezia da, Espainia aldeko tradiziokoa. I. Sarasolak dio ahoskerari eman beharko litzaiokeela lehenetasuna eta, horrenbestez, *korrejidore* proposatzen du. H. Knörrek <g> grafia egokiagoztat jotzen du. Eztabaida luzearen ondoren eta zenbait kontsulta egin eta gero, <j> grafia hobetsi da.

Kotxe hitzari sarrera eman ala ez eztabaidatu da ondoren. Badirudi haurrentzat erabiltzen dena edo trenetakoa aipatzeko egokia izan litekeela hitz hau. Peillenek galdetu du ea zer egin zen duela hiru urte trenei buruz egin zen hiztegi hartan. Ez zela sartu erantzun zaio. Hemen ere eztabaida luzea izan da. Azkenean, hau izan da onartu dena: kotxe: 1* e. automobil, ...; 2. trenetakoa eta zalgurdi, bagoi eta abarren kidea (hemen erredakzio arazoak dira); 3. Heg. haurrak eramatekoa.

Kualitate / kalitate auziaz izan da hurrengo eztabaida. Azkenean batzordeak *kalitate* ezabatzea proposatzen du. X. Kintanak e.-ren orde h. ezartzea eskatzen du. Azkenean batzordearen proposamena bozkatu da: hamabi boto izan dira alde. Beraz, honela gelditu da sarrera: *kualitate** e. nolakotasun.

Kubo sarrera dela eta, eztabaidatu ondoren, honako hau onartu da: 1. Geom.; 2. *zortzi metro kubo*. Hirugarren adiera ('ontzia' alegia) bigarren itzulirako utzi da.

Kuia txiki = kalabazin sarreraz, lehenbizi *kuiatxiki*, dena batera idatzia ematea proposatu da. Honen ondoan, *kalabazin* hitza ere sartuko litzateke. Baina azkenean hurrengo bileran argitzekotan utzi da.

Laborategi / laboratorio. *Laborategi* batez ere 1969tik hona erabili omen da. Eztabaida luzea izan da. Batzordeak ez du proposamenik eta botoetara eramán da. *Laborategi* formaren alde, 9 boto; *laboratorio* formaren alde, 6 boto. Beraz, *laborategi* hitza onartu da.

2.2.2. Hiztegi Batuko lanabes - lekoa zerrenda onartzea.

X. Kintanak, H. Knörrek eta A. Urrutiak egin dizkiote oharrak zerrenda honi.

X. Kintanaren lehenbiziko oharra (*langilego*-ri buruzkoa) ontzat eman da. Zerrenda berrian jaso dago jadanik ohar hori.

Lata-ri buruzko eztabaida etorri da ondoren. Kontserbekin zerikusia duen zer hori jasotzea onartu da. B. Oihartzabalen ohar baten ondoren, adiera hori honela jasoko da: 2. Heg. kontserba ontzi mota bat.

Latin hitzaren ondoan *latindar* ere sartzea eskatzen du Kintanak. Horrelako hitzak hurrengo itzulirako egokiak direla uste du batzordeak. Hala onartu dute euskaltzainek ere.

Laurleko hitzari izarfioa ezartzeari ez deritza batzordeak zuzen. Gutxi erabilia izatea ez da aski arrazoin hitz bat * gisa markatzeko. Horrenbestez, bere horretan utzi da.

Lekaide / lekaine gaitzestea eskatzen du ohargileak. Hauen ordez, *fraide* eta *moja* eranstea eskatzen du. Hitz hauek Iparraldean ezezagunak badira ere, Hegoaldean, XX. mendeko testuetan erabiliak izan dira. Ordaintzat proposatzen direnak ere egiazko ordain zuzenak ez lirateke izango. Horrenbestez, batzordeak bereari eusten dio. Botoetara jo da eta batzordearen aldekoak hamabi izan dira. Beraz, zerrendan dauden bezala agertuko dira hitzok.

Gauza bera gertatu da *lekaro* hitzarekin ere. Botoetara eraman da. Hamalau atara dira batzordearen proposamenaren alde. Beraz, dagoen bezala utziko da.

Ondoren, H. Knörren oharrak jarri dira mahai gainean.

Langabetu sartzea eta *e. langabe* gehitzea proposatzen zuen oharra erretiratu egin du ohargileak berak.

Langabezia-ri buruzko eskaria ez da onartu.

Lano-ri dagokiona bere garaian erabaki zen.

Lantegi sarreran jadanik oharra jasoa ageri da. Hala ere, eztabaidan zehar bigarren adiera bat gehitzea onartu da: 2. egitekoa, lana, beharlekua. *Lantegi ederra hartu dik.*

Larregi hitzari ere Bizk. oharra eranstea onartu da.

Larrua jo sarrerak marka behar luke, ohargilearen iritziz. Azkenean proposamen hau onartu da: larrua jo, 1. larrua landu; 2. Lgrt. sexu harremanak izan.

Laskitu-ri buruzko oharra ez da ontzat eman. Dagoen dagoenean utzi da sarrera.

Laster: izen kategoriakoa dela esatearekin aski da, batzordearen ustez. Hala ere, izenondo gisa, honako adibide hau gehituko zaio: *lan lasterra*.

Lautada hitzak ekarri du hurrengo eztabaida luzea. Ohargileak ez du gehiegi maite hitz hori. Azkenean botoek erabaki dute auzia. Sarasolak honako proposamen hau bozkatzea proposatu du: lautada, geogr. h. ordoki. Proposamen honen alde agertu dira ha maika euskaltzain. Bost boto, berriz, gauzak dauden daudenetan uztearen alde. Beraz, aldaketa hori ezarriko zaio zerrendari.

Lehendakari hitzaren esparrua murriztea proposatzen du Knörrek. Dagoen bezala uztea erabaki da.

Legenagusi dela eta, lege sarreran, lege nagusi azpisarrera sartuko da.

A. Urrutiaren oharrak etorri dira ondoren.

Landar, langin, latindar, laumaraiko, lauzatu eta *lauziriko* hitzak hurrengo itzulirako uztea proposatu eta onartu da.

Lañotasun hitzari leku egitea onartu da.

Lapran hitza dela eta, *lapranean* izango litzateke sartu beharrekoa. Ohar honekin sartzea onartu da: **Lapranean**, Bizk. zeharka, *lapranean inausi*.

Latifundio sartzea onartu da.

Lauzka, lauzkatu bikotearen adiera eskatzen du ohargileak. Eztabaidan zehar era guztiak oztupoak atera dira. Azkenean, honako gehiketa hau egitea onartu da: 'la-gundu, indartu'.

Legamiatu sartzea onartu da: **Legamiatu**, ore a altxatu.

Azkenik, eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira.

Landa: eztabaida luzearen ondoren, bi adiera hauek jasotzea onartu da: 1. Lantzeko on den lur-eremua, alorra; 2. Hiriguneari kontrajartzen zaion eremua, batez ere hitz el-kartuetan.

Lanpara hitza dagoen bezala uztea erabaki da.

Lastimoso sarrera ezabatu egingo da.

Leiar sarrera dagoen bezala uztea onartu da, Opt. oharra erantsita, hala ere.

Honenbestez, *lanabes* - *lekoa* zerrenda onarturik geratu da. 3. *Eskuartekoak*.

3.1. *Madrileko Hezkuntza eta Kultura Ministerioko literatur sariketarako epaima-haikideak.*

Premio Nacional de las Letras Españolas delakorako euskaltzain oso bat joateko ohitura ezarria dago. X. Kintana jauna izendatzea onartu da.

Gainerako sarietarako honako proposamen hauek onartu dira: Poesiarako, Jon Kortazar; narratibarako, Ana Toledo; saiakerarako, Patri Urkizu; antzerkirako, A. Eguzkitza; haur eta gazte literaturarako, Pakita Arregi, eta itzulpengintzarako, X. Mendiguren Bereziartu.

3.2. *A. Abbadieren erretratua.*

Euskaltzainburuak euskaltzainei jakinarazi die Eusko Jaurlaritzak V. Ametzoy pin-toreak egin berri duen Abbadieren erretratua Euskaltzaindiaren esku uztea erabaki duela, artistak hala eskaturik. Arratsaldeko bilkuran jarriko da agerian arte lan hori.

3.3. *Barañaingo epaia.*

Aspalditik datorren arazo honetan azkenean Epaimahai gorenak arrazoi eman die Barañaingo udalari eta Nafarroako Gobernuari. Euskaltzaindiak ere aldeko jarrera erakutsi zuen bere garaian. Hau dela eta, H. Knörrek proposatu du prentsarako ohar bat egitea eta zabaltzea.

J. San Martinen arabera, Euskaltzaindiak salatu egin behar du egiten diren oharren aurrean egunkariak duten jarrera. Behin eta berrero, gure oharrak murrizturik ageri omen dira eta, bereziki, Euskaltzaindia errege dekretu baten bidez onartua izan zelako kontua mozturik eman zutela bere garaian, Barañaingo auzi hau dela eta egindako oharrean. Euskaltzaindia erdian aurkitzen da eta egoera honetaz baliatu behar du. Euskaltzaindiak zer nolako eginkizuna duen eta zer den argiro azaldu beharko litzatekeela dio. Gutxienez, aktan ezarria geldidatzen da.

3.4. Azkenik, Haritschelhar jaunak euskaltzain eta batzordekide guztiak jasoko duen dieta ordainketei buruzko gutuna irakurri du. Kontua da, hemendik aurrera aldika

aldika egingo direla ordainketak. Ez da itxarongo, orain arte bezala, batzorde guztien agiriak eskuetan izan arte. Garaiz kobratu nahi bada, egindako batzarren berri ere garaiz eman beharra azpimarratu da.

Eta, 14: 25etan amaitutzat eman da goizeko bilkura.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

Eranskina

EUSKALTZAIN OHOREZKO BERRIEN PROPOSAMENA

Arautegiaren 39. artikulua arabera eta otsaileko osoko bilkuran erabakitakoari jarraituz, ondoren zerrendatzen diren euskaltzain urgazleak, ohorezko euskaltzain izendatzeko proposamena aurkezten du Zuzendaritzak:

Jesus Atxa Agirre, Julene Berrojalbiz eta Karmele Esnal Zulaika. Irakasleak, Nafarroan, Bizkaian, Iparraldean eta Gipuzkoan, euskal irakaskuntza arloan, Zuzendaritzaren "ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak". Ikastola munduan sortzaile, bultzatzaile eta irakasle izanak. Zertzelada gehiago nahi izanik erraz gara daitezke.

Marie-Jeanne Minaberri. Asko idatzi du, haurrentzako liburuak, batez ere. Ipuinak sortzeaz gain, beste anitz itzuli ditu. Bestelako ikas materiala ontzen lagundu du ("Haize Garbia"-rekin eta beste).

Jaime Kerexeta Gallastegi, Xabier Gereño Arrarte eta Karmelo Etxenagusia Uribe. Hirurok euskal idazle, euskal liburu askoren egile eta itzultzaile, ikustea baino ez dago batez ere lehenengoren eta bigarrenaren liburuki zerrenda. Lehenengoa eta hirugarrena, elizgizon legez "euskarari mesede bikainak egindako lagunak" ditugu, Biblia eta liturgia testuetan euskarak bere lekua izateko sortzaile, bultzatzaile eta maisu izan baitira. Bigarrena, ordea, euskal kulturaren bultzatzaile azpertzaitzenetarikoa izanik hau ere "euskarari mesede bikainak egindakoa". Besteak beste, berak sortu zituen, Xabier Peña irakasle jarriarik, duela 50 urte, gerra osteko lehen euskara ikasteko klaseak Bilbon. Eranskin gisa zertzelada gehiago eman daitezke.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Eugenio Agirretxe Azpillaga. Bi hauek euskaltzain urgazle bezala zaharrenak ditugu. Horrez gain, lehena, idazle eta nobelagile trebea; bigarrena, azken belaunaldietako euskal predikaririk bikainenetarikoa, idazle eta irakaslea. Biok urte askotan "euskarari mesede bikainak egindakoak", merzei dute, aurreko bi lerroetakoek bezalaxe, Zuzendaritzaren ustetan, Euskaltzaindiak, ohorezko akademikotasun maila ematea.

Euskaltzain urgazle horiez gain, **William Anthony Douglas** proposatzen da ohorezkoen mailarako. Douglas jaunak Renoko "Basque Studies Program" izeneko Saila sortu zuen Nevadako Unibertsitatean. Gainera, liburu eta artikulu askoren egile dugu (*Death in Murelaga*, 1970, eta *Amerikanuak*, 1975, tartean).

Azkoitian, 1998eko martxoaren 27an

* * *

Bilbon, 1998ko apirilaren 24an Ageriko batzarra

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren Egoitzan, 1998ko apirilaren 27an, arratsaldeko Setan, hasi da batzar irekia.

Honako jaun-andre hauek bildu dira:

Euskaltzain osoak: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, eta P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, X. Kintana, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, A. Urrutia eta L. Villasante.

Euskaltzain ohorezkoak: E. Agirretxe, J. Atxa, K. Esnal, K. Etxenagusia, X. Ge-reño, eta J. A. Loidi. J. Berrojalbizen ordeez, Isabel Andía, haren alaba.

Euskaltzain urgazleak: P. Arregi, R. Badiola, A. Eguzkitza, M. Gorrotxategi, J. L. Lizundia, A. Muniategi, K. Rotaetxe, M. M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren eta J. J. Zearreta.

Mahaiburua Zuzendaritzak osatu du J. Haritschelhar jaunaren lehendakaritzapean.

1. Goizeko bileraren berri.

Lehenbizi, P. Goenaga idazkariak goizeko bilkuraren berri eman du. Alde batetik hiztegi batuari dagozkion erabakiak aipatuz eta ondoren euskaltzain ohorezko berriak onartzeko erabakiaren berri emanaz. Hauek dira izendatu berriak: Jesus Atxa Agirre; Julene Berrojalbiz Berrojalbiz; William Anthony Douglas; Karmele Esnal Zulaika; Marie-Jeanne Minaberri; Jaime Kerexeta Gallastegi; Xabier Gereño Arrarte; Karmelo Etxenagusia Uribe; Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Eugenio Agirretxe Azpillaga jaun-andreak.

2. Hilberri txostenak.

J. M. Satrustegik Jose Maria Azpiroz jaunaren omenez idatzitako hilberri txostena irakurri du idazkariak. Txostenean, haren apaiz eta euskaltzale alderdiak azpimarratu dira.